

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

KONTROL MOZIOA

Udal dokumentazioa hasieratik euskaraz sortzeari buruzkoa

Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2020ko uztailaren 13an Pertsonentzako Zerbitzuen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Martxoaren 20an, MZ.02. Miramon Plan Bereziaren aldaketaren inguruko txostena idatzi zuen hirigintzako goi teknikari juridikoak. Ondorioetan ohartarazi zuen, behin betiko onarpena izateko, Plan Bereziaren aldaketaren txostena osorik euskarara itzuli beharra zegoela. Ohar adierazgarria da hori, Plan Berezi baten aldaketak urrats ugari egin behar baititu, tartean jendaurrean jartzea.

Bide beretik, berriki, uztailaren 2an, herritarrentzat irekitako jardunaldia egin zen udaletxean, hurrengo udaltzarretan aztertuko diren arau proiektuen berri emateko. Horien artean zegoen AL. 14. PAPIN DONOSTIAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN XEDAPEN ALDAKETA proiektu normatiboa. Hamar egun lehenago herritarrei epostaz bidalitako dokumentazioa, ordea, gaztelania hutsez zegoen. Partaidetzako sailari euskaraz bidaltzeko eskatu arren, "Hirigintzan ez dago itzulia dokumentoa eta horregatik ez dugu bidali" erantzun zuten. Baldintza horietan, dokumentua euskaraz ez egonik, bilera antola daitekeen galdetuta, ez genuen erantzunik jaso.

Udalaren 2019ko diru kontuen itxierari onarpena emateko, Kontuen Batzorde Bereziaren bilera informatiboa antolatu zen joan den uztailaren 9an. Udal taldeok bilerarako eskuratu genuen dokumentazioa, ordea, gaztelania hutsez zegoen. Euskaraz bidaltzeko eskatuta, ez zutela euskaratzeko astirik izan eta hurrengo bilerarako izango genduela erantzun ziguten.

Horiek hiru adibide besterik ez dira, baina aste horietan zehar beste kasu batzuk izan dira (DTSS, Musika Eskola...). Badirudi udal sailek praktika normala dutela hori, ohikoa, gaztelaniaz sortzea lanerako dokumentazioa eta gero euskarara itzultzea. Herritarren eskura iritsi daitezkeen dokumentuak izanik, ordea, ez da normaren, hau da, arauaren araberako praktika bat, ez baita bidezkoa; horrela jardunda, euskaldunon hizkuntza eskubideak urratzeaz gain, informazio eskubidea ere urratzen zaigu euskal hiztunoi.

Horregatik, Hirigintza Saileko zinegotzi ordezkariari interpelazioa egin genion, joan den uztailaren 13ko batzordean. Bere esanetan, ordea, Hirigintza Sailaren ardurapeko gertaerei dagokienez, horiek kasu puntualak besterik ez dira izan, eta ez dute praktika oker bat erakusten. Edonola, azaldu zuen itzulpen sistema digitala abian denez, errazago izango zaiela euskarazko dokumentazioa garaiz bermatzea. Horren aurrean, zinegotzi honek gogorarazi zion Udaltzaren Gobernuari Eusko Jaurlaritzak EAE-KO HERRI-ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEETAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANETARAKO IRIZPIDE OROKORRAK agirian argi adierazten duela honako hau: "Itzulpenaren pisua, oro har, arindu beharko da sortze lanaren mesedetan" (2. atala, 6. orr.). Honako hau ere badio: "Nahiz eta Herri-administrazioko langileak, neurri batean edo bestean, euskaraz lan egiteko eta dokumentuak hizkuntza horretan idazteko prestatuta egon, egia da herri-administrazioan orain arte egon den dinamika orokorragatik, joera nagusia izan dela, eta izaten dela, testu gehienak

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

gaztelaniaz sortu eta gero euskarara itzultzera bidaltzea". Gainera, bi lan ildo proposatzen ditu euskarazko sorkuntzara iristeko: 1) kudeaketa aurreratua: lehenik, atal bakoitzean azterketa komunikatiboa egin. "Diagnostiko hori egin eta gero, atal bakoitzak erabaki behar du atal horietan zer egin daitekeen euskaraz itzulpenetara jo gabe. Dokumentuak itzultzera bidaltzetik euskaraz sortzera jauzia egingo duten langileei laguntza guztia emango die erakundeak, euren lana eroso egin dezaten. Helburua zein den argi dago: gure hizkuntza-gaitasuna baliatzea, gaur egungo itzulpenen kopuru handia ahalik eta gehien murrizteko"; 2) korredakzioa: "teknika horren bidez dokumentu bera bi hizkuntza ofizialetan idazten da aldi berean; alegia, testuak, hasiera-hasieratik, bi erredaktore izaten ditu, bakoitza ondoen menderatzen duen hizkuntzan espezializatua, baina elebidunak biak" (12. atala, 31. orr.).

Hain zuzen ere, 2020-2024 epealdirako Donostiako Euskararen Plan Orokorrari EH Bilduk egindako ekarpenetan proposatu du Udal Gobernuaren hizkuntza politika proaktiboagoa izatea, Udalaren hizkuntza jarduera gizarteak egin duen ahaleginarekin eta euskararen ezagutzaren aurrerapenarekin bat etortzeko. Azpimarratzekoa da Donostiako Udalak baldintza ezin hobekak dituela euskarazko atal gehiago izendatzeko: udal lanpostuen hizkuntza eskakizunaren betetze maila % 91,99 da, eta udal langileen % 76,36k dagoeneko egiaztatuta du beren lanposturako beharrezkoa duen hizkuntza eskakizuna. Gainera, 19 udal sailetatik gutxienez 11k dute derrigortasun indizea %75etik gora; hori baldintzetako bat da atal bat euskarazko jarduera osoa ahalbidetzen duen euskarazko atal izendatzeko.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

KONTROL MOZIOA:

- 1.- Udaltzatzen hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala proiektu normatiboak onartzeko prozesuen edozein unetan herritarrek eskura dezaketelako dokumentazioa euskaraz egotea.
- 2.- Udaltzatzen hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari jarrai ditzala itzulpenen kopurua gutxitzeari buruz Eusko Jaurlaritzak emandako irizpideak.
- 3.- Udaltzatzen hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari VI. plangintzaldian aurreikusitakoak baino euskarazko atal gehiago izendatzeko, eta egin dezala planaren indarraldian bertan.

Donostia, 2020ko uztailaren 16an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia